

Landareak ureztatzean busti egin behar dira?

Hasieran garrantzitsua iruditu ez arren, landareak ureztatzeko moduak buruhauste ugari ekidingo dizkigu. Naturan landareak euriarekin bustitzen dira, landarea poliki-poliki bustitzen delarik eta horregatik, baratzezain batzuek era honetan ureztatzen dituzte landareak ahalik eta modu naturalenean. Ikusiko dugun bezala, gure kasuan, metodo hau ekidingo dugu.

Baratzezaintzan zaila da, ezinezkoa dela ez esatearren, errezeta magikoak ematea, baina kontuan izanik gure lurraldean dugun klima, kontu handia izan behar dugu landareak ureztatzerakoan. Temperatura epeleko eta hezetasun handiko gunean bizi gara. Horiek dira baldintza egokienak onddoak ugaltzeko: mildiuren kasua tomate landareetan eta oidioaren kasua kukurbitazeoetan.

Hori dela eta, ahal den neurrian gure landarearen inguruko hezetasuna murrizten ahaleginduko gara landarearen zatiak busti gabe: onddoen ugaltzea ekiditeko landarea gainetik busti gabe eta zurtoina busti gabe, alegia. Tomate-landareen kasuan, adibidez, ildaskara botako diogu ura.

Gainera, landarearen oinera ura botatzen badugu, ez du ahaleginik egingo sustraiak luzatzeko eta ondorioz, gerta daitezkeen ezbeharren aurrean, landare makalagoak izango dira (lehorteak, elikagai ezak...).

Hala ere, onddoen arazoak izaten ez dituzten landareen kasuan, hosto asko dituzten barazkietan, letxugak eta zerbak bezala, landare osoa bustitzea egokia izan daiteke hostoetatik hezetasun ugari galtzen baitute eta egun bero baten ondoren, freskatu egiten baitira. Hori bai, beti lehenengo edo azken orduan ureztatuko ditugu; izan ere, eguzki orduetan ureztatzen baditugu, ur tantakek lupa efektua egin eta landarea erreko baitute.

¿Hay que mojar las plantas al regar?

Aunque en un principio, no nos parezca muy relevante, el modo en el que regamos las plantas, puede evitarnos muchos quebraderos de cabeza. En la naturaleza, las plantas se suelen mojar con la lluvia, mojando toda la planta muy poco a poco y por ello, hay horticultores que intentan imitarlo mojando las plantas por encima para que se parezca al máximo al modo más natural. Como veremos, en nuestro caso, evitaremos este método.

En horticultura, es difícil, por no decir imposible, dar una receta mágica para todo, pero tomando en cuenta el clima que tenemos en nuestro territorio, tenemos que tener mucho cuidado al regar las plantas. Vivimos en una zona de temperaturas templadas y mucha humedad. Este es un caldo de cultivo perfecto para la reproducción de muchos hongos como el mildiu de las tomates o el oídio de las cucurbitáceas.

Por ello, nuestra intención debe ser la de intentar disminuir en la medida de lo posible la humedad ambiente alrededor de nuestra planta, regando las plantas sin mojar ninguna de sus partes, nunca mojándolas por encima, ni mojando el tallo, para evitar la reproducción de los hongos. En el caso de las tomates, por ejemplo, conviene regarlas al surco.

Además, si regásemos al pie de la planta, esta no realizaría ningún esfuerzo en alargar sus raíces para conseguir agua, por lo que será más débil frente a diferentes adversidades (sequías, falta de nutrientes...) que puedan ocurrir.

Aun así, en el caso de plantas que no suelen tener muchos problemas de hongos y tienen muchas hojas como las lechugas o las acelgas, puede interesarnos mojar la planta entera al regar, ya que estas pierden mucha humedad por las hojas y esto las refresca después de un día caluroso. Eso sí, siempre a primera o última hora del día, ya que si la regamos a pleno sol, las gotas de agua pueden hacer el efecto lupa y quemar la planta.